

EDITORIALA

Elhuyar-tarren Bergaran lortu zuten aurkikundearen alderdirik az pimarragarriena elementu kimiko bat espekulazio zientifiko planeatu bati esker eta alde zuretik planeatutako metodo zehatz batez isolatzean datza. Bilatu zutelako eta plan zorrotz batez bilatu ere aurkitu zuten. Lan sistematikoaren erdiespen izan zen bada eta inolaz ere ez ustegabeko topaketa.

Bilatzen hastea bera ere, asmoa ere, ez daiteke konpreni ondo ikuspegi zabalago batez baizik. Gauzak hobeto ulertzeko galdetu beharko genuke ea nola zegoen garai hartan Bergaran hain laborategi bikaina, nola bildu ziren han hain zientzialari ospetsuak... Zalantzarik gabe garapen ekonomiko eta kulturaren bila, Ilustrazioaren haize-balei leihoa zabaltzeko egindako ahaleginen artean zegoen kimikarion lana. XVIII. mendean hondar hura Euskal Herriaren historian "tour-nant" haundi bat izan zedin nahi

zuten.

Berrehun urte beranduagotik gauzak ikusita ekintza haien fruituak ukaezinezkotzat hartu behar baditugu ere, tamalez une historiko haren balantzea ez zaigu erabat positiboa agertzen. Bi gauza behintzat gelditu bait ziren eginkizun: Euskal Herriko Unibertsitatea finkatzea eta euskara gizarte berriaren komunikazio-tresna bihurtzea.

Orain berriz asignatura bion examenen bigarren deialdian bezala aurkitzen gara. Berrin ere une historiko berezi batean.

Euskal Herriko Unibertsitatea gauzatzen ari den arren, oraindik ez da Unibertsitate euskalduna, neurri handi batean euskararen gaurkotze-prozesuak ez dituelako oraindik behar zituen urratsak eman. Helburu hauek irrikatzen ditugunok badugu zer ikasi iraganetik. Planak eginda ere batzutan asmoak

endibidean gelditzen badira, seguruna da planik gabe ez dagoela deus ere espero izaterik.

Gogoeta hau egiten ari garen momentua parada ezin hobea gertatzen zaigu euskararen eta euskarazko unibertsitatearen plangintza orokor eta sistematikoa aldarnikatzeko. Boluntarismo hutsez dihardugun taldeok daukagun apurra behintzat

eskaini nahi genuke zeregin hau burutzeko: eskarmentu pixka bat eta lanerako gogo izugarria.

Ez da asko izango baina gutxi delako behintzat ez dezatela mespretxa herriaren konfiantza jaso dutelako boterearen gailurrean daudenek. Eskaintza egina dago, zinez eta benetan egina gainera. Ea noiz ekiten diogun hain beharrezkoa den lankidetzari.